

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure zerbitzuaren berri eman eta ezagutzera emateko hainbat baliabide erabiliko ditugu; hala nola, gure webgunea, *Baleike* aldizkaria, sare sozialak eta aldian-aldiko ekimenak herrian.

Banaketa kanal garrantzitsuena eta proiektuaren oinarria izango dena interneteko online-denda ere izango den webgune bat izango da: <https://guzum.eus>. Bertan, Zumaiaiko merkatariak eskaintzen dituzten produktuak eta hauen prezioak sailkatuta ikusi ahal izango dituzte bezeroek; eta kontu bat sortuz modu erraz eta erosoan erosi ahal izango dituzte produktu guztiak.

Honetaz gain, komunikazio-fluxua mantentzeko aukera ere emango digu: herriko merkatari bakoitzak bere burua ezagutzera emateko txoko bat izango du bezero eta bezerogaientzat gertukoagoak izan daitezten, zalantzarik izanez gero hauek argitzeko chat bat izango du, helbide elektronikoa bitartez kezka helarazteko aukera egongo da eta nozki, ahoz komunikatzea nahiago dutenentzat telefono zenbaki bat jarriko da eskuragarri.

Hala eta guztiz ere, komunikazio kanpainatan beharrezkoa izango dugu herriko *Baleike* aldizkariaren babesa. Hasieran proiektua ezezaguna izango den heinean gure hainbat eta hainbat bezerogai potentzialengana helaraztea ahalbidetu diezaguke erreportaia baten bitartez, eta behin abiatzea lortuz gero, publizitatea beharrezkoa den bakoitzean edo/eta albiste garenean ere hedabide honengana joko dugu.

Gainera, enpresa egoki hazteko ezinbestekoa izango dugu herriaren berezko ahoz-ahoko komunikazioa bermatzea, sare sozialez ere baliatuz. Horretarako, *Instagram*, *Facebook* eta *Twitter* kontuak sortuko ditugu, bertan gure bezeroak aukera izango dute eskaintzak ikusteko, eskaerak egiteko, zalantzak argitzeko, e.a.

Azkenik, banaketari dagokionean, produktuak etxeetara iristeko geure enpresaren kide den pertsona batek egingo ditu banaketa-lanak garraio enpresa bat azpikontratatu ordeztu. Herri txiki bat izanik, joan-etorriak erraz eta denbora-epe laburrean egingo ditu eta horretarako, eta epe-luzerako inbertsio bezela ikusita, furgoneta hibrido bat erostea erabaki dugu.